



I. SORTZEA

1.-Atala.- JOXEMIEL BARANDIARAN "MURKONDO" Kultur Elkartea Ataunen sortu da, Pilar Barandiaran Ohorezko Lehendakaria delarik: Estatutu hauen arabera jokatu du eta aurrikusi ez denari buruz, 1988ko Otsailaren 12ko Bazkunei buruzko legeak dioenari dago.

II. ELKARTEAREN HELBURUAK

2.- Atala.- JOXEMIEL BARANDIARAN "MURKONDO" Kultur Elkartearen Helburuak honako hauek dira:

- JOXEMIEL BARANDIARANEN izenean museo ireki bat Ataunen antolatzea.
- Bere bizia, lana, ingurua eta ingurunea zabaldu eta ezaguteraztea.
- Helburu hoiek lortzeko eman behar diren urratsak bete eta edozein Erakunde eta Ezarkunderekin arremanetan jartzea.
- Aurreko idatzatian azaldutako ekintzen kalte gabe, Elkartek, bere Helburuak betetzeko honakook egin ahal izango ditu:
 - * Bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko, era guztietako ekonomi ekintzak gauzatzea.
 - * Era guztietako ondasunak eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta hitzarmenak egitea.
 - * Nolanahiko ekintzak burutzea, beti ere Legeekin eta bere Estatutuekin bat etorritik gero.

III. ELKARTEAREN EGOITZA

3.- Atala.- Kultur Elkartea honen denboraldiko egoitza Ataun San Gregorion, Olalde 3-2goa ez. izango da.

Elkartea egoitza edo Elkartearen beste lekuren bat tokiz aldatzeko erabakia Zuzendaritza Batzordeak hartuko du, eta horrek Elkartea-Erroldari helbide berriaren berri emango du.

IV. LURRALDE EREMUA.

4.-Atala.-Elkartearen ekintzak honako lurralde eremu honetan gauzatuko dira nagusiki: Euskal Herria.



V. IRAUPENA

5.-Atala.- JOXEMIEL BARANDIARAN "MURKONDO" izeneko Kultur Elkartea betirako eratzen da. Ohiz kanpoko Batzar Orokor Bereziaren erabaki baten bidez desegin ahal izango da soilik.

VI. BAZKIDEAK

6.-Atala.-Bazkideak moeta honetakoak izan daitezke:

1) Ohorezko bazkideak: Zuzendaritzaren proposamenez edo 25eko bazkide kopuruak eskatuta, Batzar Orokorrak izenda daitezke. Beren ekintzaz edo ihardueraz Elkartea honen helburuak sustatzen eta indartzen dituen edonor izan daiteke.

2) Bazkide-arruntak:jaiotzez edo bizitzez Ataundar diren edonor izan daitezke kopuru-mugarik gabe adin nagusitasuna eta iharduteko gaitasuna ezik, baita ere aldi berean edozein lege nortasundunak herri nahiz norbanako alorrekoak, beren egoitza Ataungo Herrian finkatu dutenean.

3) Bazkide-laguntzaileak: Elkartea diruz laguntzen duen edonor izan daiteke, bai gara adineko norbanakoak bai lege nortasundun nahiz herri nahiz norbanako alorrekoak.

Bazkide hauek ez dute inolako partaidetzarik izango Zuzendari batzordean, ez eta botua emateko ahalmenik ere Batzar Orokorrean.

7.- Atala.- Elkartean baja izateko arrazoiak:

- Heriotza.
- Norberak idatziz eskatzea.
- Bazkideak estatuto hauek ez betetzea.Horrela botatako bazkideak Batzar Orokorrean entzuna izateko eskubidea izango du.

VII. BAZKIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK



8.-Atala.Bazkideen eskubideak:

a)- Bazkide arruntek eskubide hauek izango dituzte:

- 1)- Batzar Orokorrretan hitzegiteko eta botua emateko eskubidea erabiltzekoa eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatekoa.
- 2)- Elkarateak antolatu edo eskain litzakeen zerbitzu berri emate eta ekintzez baliatzekoa, horiei buruz erabakitako arauak betez.
- 3)- Zuzendaritza Batzordeko kide izatea
- 4)- Zuzendaritza Batzordeak erabakitako arauen arabera Elkaratearen egoitzan sarbidea izatekoa.
- 5)- Elkarateko beste bazkideen nortasuna, diru sarrera eta gastu kontuen egoera, eta Elkaratearen ekintzen garapeneren berri uneoro jakitekoa.

b)-Ohorezko eta bazkide laguntzaileek honako eskubideak izango dituzte

- 1)- Elkarateak antolatu edo eskain litzakeen zerbitzu berri emate eta ekintzez baliatzekoa, horiei buruz erabakitako arauak betez.
- 2)- Batzar Orokorrean hitzegiteko eskubidea, baina ez boturik emateko ahalmenik

9.-Atala.- Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- 1) Erabakitako kuota bera garaian ordaintzea.
- 2) Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak onartutako arauak eta erabakiak onartu eta betetzea.
- 3)Elkaratearen helburuak iristeko lankidetza ekintsua ematea.

VIII. EKONOMI ARAUBIDEA

10.-Atala.- JOXEMIEL BARANDIARAN "MURKONDO" Kultur Elkarateak ez du sorrerako ondasunik.

Bere ekintzak aurrera eramateko, dirubide hauek ditu:

- 1) Bazkideen kuota.
- 2) Antolatu dituen edo pate hartuko duen ekintzetatik sarrerak.

- 3) Zerbitzuetatik ateratakoak.
4) Lor ditzakeen borondate hutsezko emaitzak,
nahiz ekarpenak.



11.-Atala.- Urteko aurrekontuaren kopurua Batzar Orokorrean erabakitzen dena izango da

IX. AGINPIDE ORGANOAK

12.-Atala.- Elkartearen Zuzendaritza eta administrazioaren arduradunak honako hauek dira:
-Bazkideen Batzar Orokorra.
-Zuzendaritza Batzordea.

Horietako bakoitzaren antolaketa, eginkizun eta funtzionamendua ondoren arautzen dira.

X. BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA

13.-Atala.- Batzar Orokorraren bidez adieraziko dira Bazkideen nahiak, ohizko bilerak eta bilera bereziak egingo ditu.

Bazkide guztiek osatzen dute Batzar Orokorra.

Bazkide arruntak hitzegiteko eta botua emateko eskubidea izango dute.

Ohorezko eta bazkide laguntzaileek aldiz, hitzegiteko eskubidea izango dute Batzar Orokorrean, baina ez boturik emateko ahalmenik.

14.-Atala.- Batzar Orokorraren ohizko bilera egiteko deia, gutxienez urtean behin egingo da, urteko lehen hiruhilabeteen barruan ondorengo gaiak onartzeko:

- 1) Elkartearen iharduketa-egitazmo orokorra, aurreko urtean izandako gastu eta diru-sarreraren kontuen egoera.
- 2) Hurrengo urteko aurrekontua
- 3) Zuzendaritza Batzordea hautatzea.

15.-Atala.- Batzar Orokorraren bilkura berezia, Zuzendaritza Batzordearen kabuz edota bazkideen heren baten eskariz bilduko da.

Honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilkura berezia egin beharko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
b) Elkartea desegiteko.



16.-Atala.- Batzar Orokorretarako deiak, nahiz ohizkoak nahiz bereziak, idatziz egin beharko dira, eta bilera tokia, eguna, ordua eta aztergaien zerrenda azaldu. Deia Batzarra egin behar den baino hamar egun lehenago egineta adierazi beharko da.

17.-Atala.- Batzar Orokorretarako erabaki guztiak bildutakoen boto gehiengoaz hartuko dira, Elkartea desegitekoa izan ezik.

XI. ZUZENDARITZA BATZORDEA

18.-Artikulua.- Zuzendaritza-Batzordea honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria
Lehendakari-ordea
Idazkaria
Diruzaina

Mahaikideak, Batzar Nagusian erabakiko denaren arabera.

Gutxienea ilean behin bildu beharko du ohizko bileran, eta elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den hainbat alditan.


19.-Atala.- Zuzendaritza-Batzordeko kideak, Batzar Orokorrak hautatuko ditu eta bi urterako izango dira.

Batzordeak berariz ezeztatu ezean eta behin eta berriro hautatu ahal izango dira. Kargu horiek lehenengo txandan % 50a berrituko da. Bigarreanean gainerantzekoa.

20.- Atala.- Karguak ordainik gabekoak izango dira. Dena den, Batzar Orokorrak egun sariak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

21.-Atala.- Zuzendaritza Batzordearen erabakiak boto gehiengoaz hartuko dira. Berdinketa izanez gero, Lehendakariaren boto bereziak erabakiko du auzia.

XII. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN EGITEKOAK



22.-Atala.- Zuzendaritza Batzordearen betebeharrak hauek dira:

a) Elkartearen ohizko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren aztertarauren arabera eta bere esanetara.

b) Elkartek aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.

c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari, onar dezan aurkeztea.

d) Batzar Orokorraren bileretako aztergai-zerrenda egitea, eta ohizko Batzar Orokorraren eta berezien deialdia egitea.

e) Bazkideek egiten dituzten proposamenei erantzutea eta horretarako behar diren neurriak hartzea.

f) Behar diren Erakundeekin harremanak izatea.

g) Batzar Orokorrak berariz izendatua ez den beste edozein eginkizun.

XIII LEHENDAKARIAREN EGITEKOAK

23.-Atala.- Lehendakariak Elkartearen legezko ordezkartza beregain du.

Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak aurrera eramango ditu. Era berean, aipaturiko bi sail horien buru izango da.

24.-Atala.- Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten ditzten bileren deiak egin eta bukatutzat ematea; bai batean eta bai bestean sortzen diren eztabaidak zuzentzea.

XIV LEHENDAKARIORDEAREN EGITEKOAK

25.-Atala.- Lehendakariordeak Lehendakariari lagunduko dio, eta honen aldibaterako ezintasun bitartean ordezkatu egingo du.

XV. IDAZKARIAREN EGITEKOAK

26.-Atala.- Idazkariari dagokio bilera agiriak egitea; agiri horiek dagokien liburuan jasoko dira edatziz. Agiri-liburuaren zaintza eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, Elkartearen arloan indarrean dauden legezko erabakiak bete daitezzen arduratuko da.

XVI.DIRUZAINAREN EGITEKOAK

27.-Atala.- Diruzainak, egindako sarrera eta ordainketen berri emango du, diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoeraren berri emango du. Guzti horiek Zuzendaritza Batzordearen aurrean aurkeztu behar dira eta honek Batzar Orokorrari, onartu ditzan aurkeztu.

XVII.MAHAIKIDEEN EGITEKOAK

28.-Atala.- Zuzendaritza Batzordeko kide izanik Mahaikideak ere Lehendakari , Lehendakariorde, Idazkari eta Diruzainak bezala hitza eta botoa izango dute.

XVIII.ELKARTEA DESEGITEA

29.- Atala.- Elkartea honako hauengatik desegingo da:

-Bazkideen nahiaz.

-Aurrera joan ezin duelako.

-Beste edozein arrazoiengatik.

Elkartea deseginez gero, erabakia hartu duen Batzar Orokorreko Kitapen Batzordea izendatuko du.Batzorde hori Zuzendaritza Batzordekideek osatuko dute eta diruaz arduratuko da.

30.-Atala.- Bazkidekiko eta besterekiko Elkartearen zorrak ordaindu ondorren, geratzen den Elkartea-ondarea, geratzen bada behintzat, Euskal Kulturarekin lotutako ekintzetarako izango da.


XIX. ERABAKI OROKORRAK

31.-Atala.- Elkarteak beharturik dago Estatuto hauen edozein aldaketaren arazoa, dagokion Erakunde Administratiboari ematera.

32.-Atala.- Estatuto hauek betetzeko edo ulertzeko orduan sor litekeen edozein zalantza argitzea Zuzendaritza-Batzordeari dagokio.

XX. ESTATUTOAK INDARREAN

33.-Atala.- Estatutu hauek, Batzar Orokorrak onartu eta arazoa dagokion Erakunde Administratiboak honestu orduko izango dira indarrean.



Estatutuak ikustatu ondoren, Elkarteen Errolde Nagu-
a sortaraz, ondoren Erakundeak, 1977ko azar-
riko 77. artikuluko bidez, zuzendaritza-
manuek erantzun zuten.

Visados los presentes Estatutos, a los efectos re-
minados en el Decreto 77/1986, de 25 de Mayo, del
Gobierno Vasco, por el que se crea el Registro
General de Asociaciones y demás normativa concorde.

Donostia
G/4165/93

8 NOV 1993

En, a

EL ENCARGADO DEL REGISTRO

ENCARGADO DEL REGISTRO

